

Atalasea barrurantz zeharkatzean irten da kanpora

Etxean itxi behar izan du bere burua, ezagutzeko mundua. Lehenago oharkabean egiten zuen hautua, lanera joatera baitzegoen behartua. Esna! Jaiki! Egin esandakoa; lanera joateko atea ireki! Irabazi, erosi, etxera itzuli eta lotara ihesi! Nanometroak dituen izaki bat agertu da orduan. Pantailak ate bihurtu zaizkio orain, ateak begi eta begiak min. Lehenago ikusten ez zituen arazoei so eginda, damuak jota, ezin dio eutsi, zerbait behar du egin. Eta atalasea zeharkatu barik daramatza bederatzi egun. Eta nanometroaz nanometro, Erkidego osoak besteko biomasa batu arte ugaltu zen izakia, gupidagabe, lizun. Eta atalasea zeharkatu barik daramatza hamazortzi egun. Zalantza du barruan ala kanpoan dagoen; zalantza nor ote den errudun. Zalantza du errudunik ere ote dagoen, baina argi dauka nor den zordun...

Bixardune